

NERABEZAROKO BELAUNALDI ARTEKO SEXISMOAREN LOTURA ETA FAKTORE MODULATZAILEAK

Tesiaren egilea: Jone Aliri Lazcano

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendua Saila

Tesi-zuzendaria: Maite Garaigordobil Landazabal

Tesiaren laburpena:

Sexismoa pertsona batzuei sexu biologiko jakin batekoak izateagatik zuzendutako diskriminaziozko jokabide bezala definitzen da, eta haren funtzioan jarrera ezberdinak hartzen dira. Eztabaida ezina da genero-berdintasunerantz emakumeek aurrerapen handiak egin dituztela, baina, hala ere, egungo ikerketen emaitzek baieztatzen dute generoan oinarritutako diskriminazioak oraindik indarrean jarraitzen duela, gizarte garaikideko arazo bat delarik. Sexismoa sexuen arteko desberdintasunak mantentzen dituen uste edo sinesmen nagusietako bat bezala kontsideratua dago, eta ikerketek sexismoaren eta emakumeen aurkako biolentziaren artean dagoen erlazio zuzena baieztatzen dute. Hortaz, tesi honetan aztertu den gaia oso garrantzitsua da bai ikuspuntu psikologikotik, bai eta gizarte-ikuspuntutik ere.

Ikerketa honen helburu nagusiak honako hauek izan dira: sexismoak sexurekin eta adinarekin dituen erlazioak aztertzea; gurasoen gizarteratze-estiloek eta sexismo-mailek nerabeen sexismoarekin dituzten erlazioak ikertzea; sexismoak gurasoen hezkuntza-mailarekin eta familiaren maila sozioekonomiko-kulturalarekin dituen harremanak analizatzea; ikastetxe motak sexismoarekin erlaziorik duen aztertzea; eta sexismoaren eta autoritarismoaren, nagusitasun sozialerako joeraren eta biolentziaren arteko erlazioak ikertzea.

Lagina 2.867 parte-hartzailek osatzen dute: 1.455 nerabe (11-17 urte) eta 1.412 guraso. Nerabeak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasten ari dira, ikastetxe erlijiosoetan eta ez erlijiosoetan, publikoetan eta kontzertatuetan. Ikertu nahi diren aldagaiak neurtzeko, zortzi ebaluazio-tresna erabili ziren, guztiek ere berme psikometriko egokiak zituztelarik.

Lortutako emaitza azpimarragarriek adierazten dutenez, gizonezkoek sexismo-maila altuagoak agertzen dituzte, bai nerabeen artean, bai eta gurasoen artean ere. Adinari dagokionez, nesken kasuan, adina igo ahala sexismo-maila baxuagoak agertzen dituzte nerabeek. Familia barneko loturak aztertzean, seme-alaben sexismoaren eta gurasoek haiekin erabilitako gizarteratze-tipologiaren artean erlazio nabarmenik ez da ageri, baina amen sexismo-mailaren eta seme-alaben sexismo-mailen artean erlazio esanguratsuak daude. Hezkuntza-maila eta maila sozioekonomiko-kulturala ere sexismoarekin erlazioz daude: zenbat eta maila altuagoa, orduan eta sexismo gutxiago. Ikastetxeei dagokienez, emaitza nabariena

da ikastetxe erlijiosoetan ikasten duten nerabeek, tradizionalagoak izaki, sexismo-maila handiagoak agertzen dituztela. Helduetan, eskuineko autoritarismoa eta nagusitasun sozialerako joera jarrera sexistekin positiboki erlazionatzen dira, eta, nerabezaroan, biolentziaren justifikazioaren aldeko jarrerak dira jarrera sexistekin erlazio positiboa dutenak.

Emitza hauetan oinarriturik, bai familiari bai ikastetxeei zuzenduta dauden eta nerabeen jarrera sexistak gutxitzeko helburua duten prestakuntza- edo heziketa-kanpainak garatzearen garrantzia iradokitzen da.